

HITZ BITANGorka Zabaleta | **DONOSTIA**

Golak egiteko abilezia aparta duela jakina da dagoeneko. Bartzelonan jokatu zuenean, «marrazki bizidunetako jokalaria» zela bota zuen Jorge Valdano, aurrelari brasildarraren golek txundituta. Romariok gol asko eta zoragarriak egiten baititu. Izaeraz alferra eta diziplina gutxiakoa —bezperan parranda eginda hobeto jokatzen duela dio— izanagatik jokatu duen talde guztietan gol mordoxka ziurtatu du urtero. 1986tik 13 aldiz izan da Ligako golegile onena —maila nagusiak kontuan hartuta bakarrik—, inoiz inork lortu ez duena. Jadanik 813 gol egin ditu, eta Peleren marka haustea du helburu, hilaren 29an 36 urte beteko dituen arren.

Aste honetan, munduko aurrelaririk eraginkorrena izendatu dute, joan zen urtean 21 gol egin baitzituen Brasilgo Ligan jokatuako 18 partidatan. Horrek 1,167ko batez bestekoa ematen du.

Golegile eraginkorrena

ROMARIO, 1,167 GOL PARTIDAKO. 2001ean Brasilgo Ligako 18 partida baino ez zituen jokatu Vasco de Gamarekin, eta 21 gol egin zituen



EPA
Romariok Brasilgo Vasco de Gaman egin ditu azken denboraldiak.

Munduan ez du parekorik, baina Brasilgo selekzioan ez du lekurik aspaldian. Scolari hautatzaileak ez du bere taldean nahi, baina Brasilek sailkatzeko izan dituen arazoan ondoren ez litzateke harriztekoa izango Romario Japonia eta Hego Koreako Mundialean ikustea. Brasilgo Ligan ere arazoak ditu Vasco de Gama klubarekin, zor dizkion 3,5 milioi dolarrek jaso arte ez baitu berriro jokatzeko asmorik. Taldekideak denboraldi-aurreko lana egiten ari diren bitartean, etxe aurrean duen hondartzan dago Romario egun hauetan.

Castillo boliviarrak, 42 gol

2001eko golegilerik onena Jose Alfredo Castillo boliviarra izan zen, 42 gol egin baitzituen Oriente Petrolero taldearekin. Ligako finalaren itzulikoaren faltan, 36 gol zeramatzen —Borgetti mexikarrak baino bost gutxiago—, baina lau gol egin eta hirugarren partida behartu zuen Castillo. Azken partida horretan beste bi egin eta Liga eman zion bere taldeari.

EGITARAUA**FUTBOLA****Espainiako Bigarren B Maila:**

U. Oviedo-Amurrio	(Gaur, 15:45)
Celta-Barakaldo	(Gaur, 16:00)
Aurrera-Ourense	(Gaur, 17:00)
Alaves-Leonesa	(Bihar, 11:30)
Gernika-Sporting	(Bihar, 17:00)
Athletic-Compostela	(Bihar, 17:00)
Eibar-Gramanet	(Gaur, 15:45)
Bartzelona-Osasuna	(Gaur, 17:00)
Beasain-Terrasa	(Gaur, 17:30)
L'Hospitalet-Real Union	(Bihar, 12:00)
Figueres-Reala	(Bihar, 17:00)

SASKIBALOA**LEB 2 Liga**

Algerias-Bilbo Berri	(Gaur, 18:00)
Gramanet-Datoc GBC	(Bihar, 18:00)
Frantziako Kopa	
Marmande-Denek Bat	(Gaur, 20:00)

IZOTZ HOCKEYA**Superliga**

Jaca-Gasteiz	(Gaur, 22:30)
Txuri-Urdin-Bartzelona	(Gaur, 20:45)

ARETO FUTBOLA**Ohorezko Maila**

Castellon-I. Xota	(Gaur, 18:30)
-------------------	---------------

ERRUGBIA**Espainiako Kopa (final-zortzirenak)**

Bera Bera-Alcobendas	(Gaur, 18:30)
Sevilla-Getxo Artea	(Bihar, 12:30)

Frantziako Liga D2

Baiona-Aurillac	(Bihar, 15:00)
-----------------	----------------

Frantziako Federal 1

D. Lohizune-Saint Paul	(Bihar, 15:00)
Baigorri-La Teste	(Bihar, 15:00)
Maule-Garazi	(Bihar, 15:00)

ATLETISMOA**Departamenduko Kros Xapelgoa**

Igandean, goiz osoan, Angeluko Girouettes Estadioan jokatuko da.

RALLYA. Joan Romak istripu larria izan zuen atzo

PATRICK HERTZOG / EPA

Romak agur esan dio Dakarrari

Joan Roma kataluniarrak ezin izango du Dakar Rallya amaitu, atzo erori eta kolpe handia jaso baitzuen. Fabrizio Meoni italiarrak irabazi zuen etapa, eta gero eta eskurago du garaipena, bigarren urtez jarraian. Autoetan Kleinschmidtek 34 minutu jan zizkion atzo Masuokari, baina japoniarrak oraindik 18 minutuko alde du.

SASKIBALOA**NBA: Pau Gasolek 31 puntu egin zizkion Phoenixi**

Memphis Grizzlies taldeko Pau Gasol kataluniarra markak hausten ari da pixkanaka. Azken partidatan 31 puntu egin zizkion Phoenix Suns taldeari, eta bere taldeak 102-96 irabazi zuen. Gainera, lehen urteko jokalariek *all star* partida jokatze-ko hautatu dute, bere taldeko Stromile Swift eta Shane Battierekin batera. Bestetik, New Jersey Nets taldeak sendo jarraitzen du Ekialdeko Konferentzian, Los Angeles Clippers irabazi ostean (108-89). Jardunaldiko beste emaitzak: Miami 85-92 Portland; Dallas 111-89 New York, Denver 96-91 Cleveland, Utah 83-79 Houston.

FUTBOLA**Nazioarteko enpresa talde batek erosi du Italiako Sampdoria**

Gaur egun Italiako Bigarren Mailan den Sampdoria klub historikoa nazioarteko enpresa talde batek erosi duela jakinarazi dute. Enpresa talde hori zeintzuk osatu duten ez da ezagutzera eman, baina Italia eta Ingalaterrako enpresez gain, arabiarrek ere badela zabaldu da Italian.

FUTBOLA**Mijatovicek dio Espainiako taldearekin fitxa dezakeela**

Pedrag Mijatovic jokalaria jugoslaviarra Italiako Fiorentina uzteko prest ageri da. Oraindik urte eta erdiko kontratua du Fiorentinarekin, baina ez du han jarraitze-ko gogorik. «Espainiako Liga da proposena niretzat», esan du jokariak. Berak esan duenez, Espainiako harremanetan da.

ZIKLO-KROSA**David Seco da Duranan Espainiako Txapelketa irabazteko faborito nagusia**

Duranako Iturribero zelaian jokatuko da Espainiako Txapelketa faborito garbi bakarra duela esan daiteke: David Seco. Busturiarra eta bere lehiakideen artean dezenteko alde dago gaur egun, eta ezustekorik ez bada Secok hirugarrenez jarraian irabaziko du titulu hau. David Secorekin batera, besteak beste, Juan Carlos Garro nafarra —Asteasun irabazle—, eta Iñigo Zarrabeitia onenen artean izango dira. Barrutiak 2.500 metro izango ditu, horietatik 1.215 belardia.